HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6048

AGINDUA, 2008ko urriaren 13koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) «Dolores Sopeña» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren izen espezifikoa aldatzeko baimena ematen duena.

Bilboko (Bizkaia) «Dolores Sopeña» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren izen espezifikoa aldatzeko baimena eskatuz ikastetxe horren erakunde titularraren ordezkariak hasitako espedientea aztertu da.

Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak izapidetu du espedientea, eta arlo honetan eskudunak diren erakundeek txostena egin dute.

Ikusi dira Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa (4ko BOE), apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (9ko BOE), bai eta gai horretan aplikatzekoak diren indarreko gainerako xedapenak ere. Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– «Dolores Sopeña» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari izen espezifikoa aldatzeko baimena ematen zaio, ondoko kode zenbakiarekin: 48002213. Ikastetxearen helbidea Bilboko (Bizkaia) Hurtado de Amezaga kaleko 44 zenbakian dago, eta erakunde titularra «Fundación Obra Social y Cultural Sopeña (Oscus)» da, aurrerantzean izen hau izango duena: «Oscus-Dolores Sopeña» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzierrekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 13a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6048

ORDEN de 13 de octubre de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza el cambio de denominación específica del centro privado de Educación Secundaria «Dolores Sopeña» de Bilbao (Bizkaia).

Examinado el expediente iniciado por la representante de la entidad titular del centro privado de Educación Secundaria «Dolores Sopeña» de Bilbao (Bizkaia), en solicitud de autorización para el cambio de denominación específica de dicho centro.

Resultando que el citado expediente ha sido tramitado por la Delegación Territorial de Educación de Bizkaia, y que ha sido informado por los organismos competentes en la materia.

Vista la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo (BOE del 4), de Educación, el Real Decreto 332/1992, de 3 de abril (BOE del 9), sobre autorizaciones de centros docentes privados para impartir enseñanzas de régimen general no universitarias, y demás legislación vigente aplicable en la materia,

RESUELVO:

Artículo 1.– Se autoriza el cambio de denominación específica del Centro privado de Educación Secundaria «Dolores Sopeña», con n.º de código: 48002213, con domicilio en calle Hurtado de Amezaga n.º 44, del municipio de Bilbao (Bizkaia), y cuyo titular es la entidad «Fundación Obra Social y Cultural Sopeña (Oscus)», que pasará a denominarse Centro privado de Educación Secundaria «Oscus-Dolores Sopeña».

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de octubre de 2008.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.